



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko azaroaren 28a

107. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan musikak duen egoerari buruzko azterlan bat egin dezan, zeinaren ondorioz prestakuntzari, interpretazioari, zabalkundeari eta sorkuntzari buruzko plan bat egingen baita. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeak adoptatu edo/eta hartzeko prozesuak hobetu ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (22. or.).

—Adierazpen instituzionala, Genero Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta. Eledunen Batzarrek onetsia (23. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, Funes, Faltzes eta Azkoiengo zahar-etxeetako erizaintzako diplomadunei aplikatu beharreko foru arauen betetzeari buruzkoa, José Javier Monzón Romé jaunak egina (24. or.).

—Galdera, Nafarroa 2012 Planean aurreikusitako obrak eginez gero Santo Domingo zahar-etxean galduko lirakeen lanpostuei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (25. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.**

### *ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2008ko azaroaren 4ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

#### **1. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA  
SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEEK ETA  
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA  
FORU PARLAMENTARIEN  
ELKARTEAK AURKEZTUA**

Foru lege proiektuko 1. artikuluari bost bis idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legeko testu bategineko 55.4.1.b) letrako azken lerrokada, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Hona testua:

Bost bis. 55.4.1.b) artikulua, azken lerrokada.

"Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbait zuzenketak aplikatzeko eskubidea ematen duen hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide bakoitzeko edo haur adoptatu bakoitzeko, 2.200 euro urtean. Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2008ko azaroaren 4ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

badira. Adopzio kasuetan, kasuko murrizketa aplikatuko da Erregistro Zibileko izen-ematearen zergaldian eta hurrengo bietan."

Zioak: Nazioarteko adopzioak gora egin du, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak dituen datuen arabera, 1999tik 2003 bitartean, nahiz eta azken urteotan egonkor-tu den. Nazioarteko adopzio prozesu bat azkenerraino daramaten pertsonak edo familiek ahalgin ekonomiko berezia egiten dute, eta hori kontuan hartu beharra dago horien ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan.

Hortaz, administrazioaren beste esparru batzuetan egon daitezkeen dirulaguntzen araubidea gorabehera –dirulaguntza horiek adopzioaren espedientearen izapidearekin lotutako zenbait gasturi dagozkie–, uste dugu arrazoizkoa eta bidezkoa dela urteko 4.000 euroko murrizketa berariazkoa jasotzea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan nazioarteko adopzio kasuetarako, eragina izanen duena Erregistro Zibileko izen-ematearen zergaldian eta hurrengo bietan. Hartara, arindu egingen dira nazioarteko adopzioen izapidetze luze eta korapilatsua azkeneraino daramaten pertsonak edo familiek egin beharreko gastuak.

Nazioarteko adopzioaren kontzeptuari dagokionez, kasuan-kasuan aplikatu beharreko arauetara eta hitzarmenetara jo behar da.

#### **2. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Foru lege proiektuko 1. artikuluari bost bis idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legeko testu bategineko 55.4.1.b) letra-

ko azken lerrokada, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Honela geldituko da 3. idatz-zatitik aitzina:

“Bost-bi idatz-zati berria.

“55. artikulua. Likidazio oinarri orokorra

“3. Gutxieneko pertsonalagatik, subjektu pasibo bakoitzeko 3.700 euro urteko.

4. Alderdi politikoentzako kuotengatiko eta ekarpenengatiko murrizketa.

Alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteetako afiliazio-kuotak eta ekarpenak, urteko 600 euro bitarte, betiere kuota eta ekarpen horiek Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 8.1 artikuluan ezarritakoaren arabera kreditatuta egonez gero.

5. Artikulu honetan aipatzen diren murriztapenak hurrengo erregelaren arabera egingen dira:

Lehena. Lehenbizi aplikatuko dira 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritakoak, bai eta hamairugarren, hamalagarren eta hamabosgarren xedapen gehigarrietan ezarritakoak ere.

Bigarrena. Eraitza positiboa bada, 3. eta 4. idatz-zatietan ezarritakoa aplikatuko da, haren mugaraino. Aplikatu gabeko kopuruak, halakorik balitz, zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati berezia murriztuko luke, baina negatibo bihurtu gabe.

Eraitza negatiboa bada, 3. eta 4. idatz-zatietakoak zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati berezia gutxitzeko aplikatuko dira, eta kasu honetan ere ezin izanen da negatiboa izan.”

Zioak: Lege bereko 62. artikuluari aurkeztutako zuzenketarekin bat etorriz, zerga oinarriko familia kenkariak kendu eta 62. artikulura eraman ditugu, tributu-kuotako kenkari bihurtuta.

### 3. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 1. artikuluari bost bis idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legeko testu bategineko 57. artikulua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Hona testu berria:

“Bost-hiru idatz-zati berria.

57. artikulua. Aurrezkiaren likidazio oinarri berezia.

Aurrezkiaren oinarri likidagarri berezia kalkulatzeko, zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati bereziari 55. artikulua 5. idatz-zatiko 28. arauan aipatutako murriztapena aplikatuko zaio, hala egokitzen bada.”

Zioak: Lege honetako 55. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin bat.

### 4. ZUZENKETA

#### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 1. artikuluari bost-lau idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legeko testu bategineko 59.1. artikulua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Hona testu berria:

Bost-lau idatz-zati berria.

59. artikulua. Likidazio oinarri orokorraren karga-tasa.

“1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Tasa aplikagarria (ehunekoa)
	3.782	13	
3.782	491,66	4.621	22
8.403	1.508,28	8.930	25
17.333	3.740,78	13.132	28
30.465	7.417,74	15.233	36
45.698	12.901,62	17.334	42
63.032	20.181	Gainontzekoak	44”

Zioak: Gure ustez, zergaren tarifa % 3 deflaktatu beharra dago, hori baita 2008rako aurreikusitako den KPIren igoera. Orobat uste dugu % 44ko gehieneko tasa aplikatu behar zaiela, berriz ere, errentarik altuenei.

### 5. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

##### FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

1. artikuluari hemezortzigarren idatz-zatia gehitzeko zuzenketa.

59.1 artikulua ordez ondoko proposatzen dugu:

Hemezortzi. 59.1 artikulua.

“1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Tasa aplikagarria (ehunekoa)
		3.672,00 €	13
3.672,00 €	477,36 €	4.488,00 €	22
8.160,00 €	1.464,72 €	8.670,00 €	25
16.830,00 €	3.632,22 €	12.750,00 €	28
29.580,00 €	7.202,22 €	14.790,00 €	36
44.370,00 €	12.526,62 €	16.630,00 €	42
60.000,00 €	19.211,00 €	Gainontzekoak	49”

Zioak: PFEZaren gehikortasuna eta zerga-bilketarako ahalmena areagotzearen aldekoak gara.

## 6. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA  
 SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
 DE NAVARRA**  
 PARLAMENTU-TALDEEK ETA  
**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**  
 FORU PARLAMENTARIEN  
 ELKARTEAK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 1. artikuluari zazpi bis idatz-zatia gehitzeko zuzenketa; haren bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 59.1 artikulua aldatzen da. Hartara, % 2,5 deflaktatzen da PFEZaren tarifa, ondoko testu berriaren bidez:

Zazpi bis. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 59.1 artikulua testu berria.

“1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Tasa aplikagarria (ehunekoa)
		3.765	13
3.765	489,45	4.600	22
8.365	1.501,45	8.885	25
17.250	3.722,70	13.070	28
30.320	7.382,30	15.160	36
45.480	12.839,90	Gainontzekoak	42”

Zioak: PFEZaren deflaktazioa diru-bilketa alokarean kostua duen tributu-neurri bat da, eta hori ezin da ez ahaztu ez kontuan hartu gabe utzi, hain gutxi hau bezalako une batean. Azpimarratu behar

da, halere, deflaktazio hori egokia dela une honetan, ondokoak aintzat hartzen baditugu:

A) Aitorpen-egileen erosmen-ahalmenari eustea bilatzen du, 2009rako aurreikusitako bizi-kostuaren igoeraren arabera jaitziko baita PFEZa (% 2, aurreikuspen ofizialei jarraikiz)

B) PFEZa beste % 0,5 deflaktatzen da (guztira, % 2,5), egungo egoera ekonomikoari erreparatuta, halako moduz non, bide hori baliatuta, PFEZaren aitorpen-egileak laguntza osagarria izanen baitute zerga-politikaren arloan, zailtasun ekonomiko bereziko sasoi honi aurre egiteko.

## 7. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI**  
 PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 1. artikuluari sei bis idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legeko testu bategineko 62.1.c) artikulua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Hona testu berria:

“Sei-bi idatz-zati berria.

62. artikulua. Kuota-kenkariak.

1. Ohiko etxebizitzarengatik kenkaria.

c) Ohiko etxebizitza edo etxebizitzak erosi edo zaharberritzeagatik egindako kenkariari dagozkien oinarrien zenbateko osoak ezin izanen du 120.000 euroko zenbatekoa gairitu, subjektu pasiboaren zerga-aldien batura aintzat hartuz”

Zioak: Etxebizitzen egungo prezioa ikusita, 90.150 euroko kopurua txikiagia da.

## 8. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI**  
 PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 1. artikuluari sei-hiru idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez bigarren lerrokada gehitzen baitzaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legeko testu bategineko 62.1.f) b') artikuluari, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Hona testu berria:

Sei-hiru idatz-zati berria.

62. artikulua. Kuota-kenkariak

1. Ohiko etxebizitzarengatik kenkaria.

f) b') Lerrokada berria.

“Kasu honetan, ez da egonen kenkarirako gehieneko oinarriko muga, urteko 9.015 eurokoa”.

Zioak: Obrak egiten badira ezgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitzak egokitzeko, gure ustez ez dago zertan 9.015 euroko muga jarri. Normalean, obrek askoz ere diru gehiago kostatzen dute, eta gainerakoarengatik kenkaria aplikatzeko aukera galtzen da.

## 9. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 1. artikuluari sei-lau idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legeko testu bategineko 62,2. artikulua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Hona testu berria:

Sei-hiru idatz-zati berria.

62. artikulua. Kuota-kenkariak

“2. Etxebizitza-errentamenduaren ondoriozko kenkaria.

Zergaldian zehar ohiko etxebizitza errentan hartuta izateagatik ordainketak egin behar izan dituzten zergadunek, honako bi kenkari hauetako bat aplikatu ahal izanen dute:

a) Zergaldian ordaindutako diru kopuruaren ehuneko 20, eta, betiere, 1.200,00 euro urtean, gehiezin.

b) Zergaldian ordaindutako diru kopuruaren ehuneko 25, eta, betiere, 1.500,00 euro urtean, gehiezin, baldin eta zergadunak familia ugarien titularrak badira.

Kenkariak egiteko, hurrengo baldintzak bete beharko dira:

a) subjektu pasiboak ez izatea zergaldian 30.000 euro baino gehiagoko errentarik, errenta salbuetsiak kontuan hartu gabe.

b) alokairuagatik ordaindutako diru kopuruak subjektu pasiboak zergaldian eskuratutako errenten ehuneko 10 baino gehiagokoak izatea, errenta salbuetsiak kontuan hartu gabe.”

Zioak: Errentamendurako pizgarri fiskalak onuragarria izan behar du, halaber, errentariarentzat, hartara pizgarria 25.2 artikuluan jabearentzat iaz ezarritako onurarekin orekatuko da. Orobat uste dugu igo behar dela familia ugarietarako kenkaria.

## 10. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 1. artikuluari sei-bost idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baitira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legeko testu bategineko 62.5.1 idatz-zatiko c) eta d) letrak, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Hona testu berria:

Sei-bost idatz-zati berria.

62.5 artikulua. Laneko kenkariak.

1. Laneko errendimenduak lortzen dituzten subjektu pasiboek diru-kopuru hauek kentzen ahalko dituzte:

“c) 10.600,01 eta 24.000 euro bitarteko laneko errendimendu garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.140 euro ken errendimendu garbi horien eta 10.600en arteko diferentzia bider 0,0125en emaitza.

d) 24.000 eurotik gorako laneko errendimendu garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro.”

Zioak: Parlamentuak onetsi berri duen kenkari horren igoerak gizarteko sektore askori onurarik ekartzen ez dionez, bereziki premia handiena dutenei, gure ustez igoera horrek eragina izan beharko luke soilik 24.000 euro bitarteko laneko diru-sarrera garbiak dituzten langileengan.

## 11. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 1. artikuluari sei-sei idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez 10. idatz-zati berria gehitzen baitzaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legeko testu bategineko 62. artikuluari, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Hona testu berria:

Sei-sei idatz-zati berria.

62. artikulua. Kuota-kenkariak

10. Familia- edo bizikidetasun-unitateengatik kenkari pertsonalak.

“1. Subjektu pasiboaren kenkariak:

a) 252 euro hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten subjektu pasiboentzat. Zenbatekoa 560 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baldin baditu.

b) 700 euro subjektu pasibo ezinduendako, egiaztatzen badute minusbaliotasuna %33koa edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa dutela. Zenbateko hori 2.520 eurokoa izanen da subjektu pasiboak egiaztatzen badu minusbaliotasun maila %65ekoa edo handiagoa duela.

2. Aurreko eta ondorengo ahaideengatiko kenkariak:

a) Subjektu pasiboarekin bizi den eta urteko errenta, salbuetsiak kenduta, lanbide arteko gutxieneko soldata baino altuagoa ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, kopuru hauetako bat:

– 252 euro, aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo, gazteagoa izan arren, idatz-zati honetako c) letran aurreikusitako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea izateko baldintzak betetzen baditu.

– 560 euro, aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

Aurreko horiek famili unitate baten parte badira, letra honetan aurreikusitako errentak gutxieneko soldata horren halako bi izanen dira gehienez, famili unitate osorako.

b) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ezkongabe bakoitzeko, subjektu pasiboarekin bizi bada eta urteko lanbide arteko gutxieneko soldatatik goragoko urteko errentarik, salbuetsiak bazter utzirik, jasotzen ez badu:

– 462 euro urtean lehenbizikoagatik.

– 490 euro urtean bigarrenagatik.

– 700 euro urtean, hirugarrenagatik.

– 938 euro urtean, laugarrenagatik.

– 1.064 euro urtean, bosgarrenagatik.

– 1.232 euro seigarrenagatik eta ondokoengatik.

Zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein ere den, baldin eta eskubidea badu ondoko c) letran aurreikusitako kenkariak baliatzeko.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 616 euro urtean. Adopzio kasuetan, Erregistro Zibilean izena ematen den zergaldian eta hurrengo bietan aplikatuko da murriztapen hori.

Nazioarteko adopzio baten bidez adoptatutako pertsona bakoitzeko ere, 1.200 euroko beste kenkari bat aplikatuko da. Nazioarteko adopzio baten

bidez adoptatutako pertsona bakoitzeko ere, 1.200 euroko beste kenkari bat aplikatuko da.

c) Ondorengo ahaide ezkongabe, aurreko ahaide bakoitzeko edo laugarren gradura bitarteko –hori ere barne– alboko ahaide bakoitzeko, edozein adinetakoa izanik subjektu pasiboarekin bizi bada, betiere haren urteko errentak, salbuetsiak kenduta, ez badira, kasuan kasuko zergaldian, urteko lanbide arteko oinarritzko soldata baino handiagoak, eta ezgaituak badira (minusbaliotasun maila %33koa edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa dutela frogatuta), arestiko letretan xedatutakoari jarraituz bidezko diren zenbatekoen gain: 616 euro urteko. Zenbateko hori 2.156 eurokoa izanen da urtean, egiaztatutako minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa bada.

Aurreko ahaide horiek familia unitate baten kide badira, arestiko lerrokadan aurreikusitako errenta-muga gutxieneko soldata horren halako bi izanen da, familia unitate osorako.

Aurreko b) eta c) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ahaideen sailkapen berean sartuko dira aplikatzeko den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza, umeorde-tze edo harrera kasuengatik subjektu pasiboarekin lotutako pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaideak ez direnak.

d) Subjektu pasiboak 616 euro murrizten ahaliko ditu pertsona lagundutzat jota dagoen ahaide bakoitzeko, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak horretarako ezarri dituen irizpide eta baremoen arabera, eta aipatu subjektu pasiboarekin bizi bada.

Murriztapena pertsona lagunduaren ezkontideak edo bikote iraunkorrak baliatuko du, edo, horrelakorik ez badu, gradu hurbileneko ahaideak.

Murriztapen hori ezin izanen da baliatu baldin eta lagundutako pertsonaren ahaideren batek pertsona horrengatik idatz-zati honetako c) letran ezarritako gutxieneko familiarraren murriztapena baliatzen badu.

Pertsona lagundua dela justifikatu egin behar da Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak ekitaldi bakoitzean emandako ziurtagiriaren bidez.

3. Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute artikulua honetako aurreko idatz-zatiko aurreko eta ondorengo ahaideengatiko kenkariak aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean hainbanatuko da.

Dena den, subjektu pasiboek ahaidetasun maila desberdina badute aurreko edo ondorengo-

ko ahaidearekin edo lagundutako pertsonarekin, gertueneko mailako ahaideak soilik izanen du aurreko edo ondorengo ahaideengatik kenkariak aplikatzeko eskubidea. Hurbileneko ahaideen artean inork ez badu urteko lanbidearteko oinarriko soldatetik gorako errentarik, salbuetsiak bazter utzita, kenkaria hurrengo mailako ahaideek aplikatzeko aukera izanen dute.

4. Ondorengoak, aurrekoak eta pertsona ez-gaituak zaintzeagatik.

Subjektu pasiboak zergaldian ordaindutako zenbatekoak Gizarte Segurantzaren egindako kotizazioengatik familiaren etxean aritzen diren pertsonekin sinaturiko kontratuen ondorioz. Langile horiek hamasei urte baino gutxiagoko ondorengoak zainduko dituzte, bai eta subjektu pasiboari artikuluko honetako 10.2 idatz-zatiaren a), c) eta d) letretako gutxiengo familiarraren aplikaziorako eskubidea ematen dioten pertsonak ere.

Murriztapen hori aplikatzen ahalko da, orobat, subjektu pasiboa bera zaintzeko sinatutako kontratuen kasuan, baldin eta hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo egiaztatzen badu bere minusbalotasun maila % 65ekoa edo gehiagokoa dela.”

Zioak: Kenkariak kuotan aplikatzearen sistemari bidezkoago deritzogu kenkariak oinarrian aplikatzearen gaur egungo sistemari baino, antolamendu horrek amaieran duen eraginak ez duelako loturarik zergadunaren errenta-mailarekin. Kenkaria oinarriari aplikatzeko sisteman mesede egiten zaie errentarik altuenei.

Bestalde, kenkari guztietan, ondorio askotarako errenta adierazle publikoa (IPREM) erreferentzia gisa aipatzen den errenta-muga guztietan, lanbide arteko gutxieneko soldata (SMI) jartzea nahi dugu.

Halaber, nazioarteko adopzioengatik kenkari berri bat proposatzen dugu, eta ezgaitasuna duten pertsonekin bizitzeagatik kenkaria zabaltzen dugu laugarren mailako alboko ahaideetaraino (lehengusu-lehengusinak).

## 12. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 1. artikuluko zortzigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legeko testu bategineko 68. artikulua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Izan ere, honakoa izanen da haren 3. idatz-zatiaren testu berria:

“Zortzi. 68.2 eta 3 artikulua.

3. Gizarte Segurantzatik zahartzaroko eta elbarritasunerako nahitaezko aseguruaren (SOVI) pentsioak jasotzen dituzten subjektu pasiboek zilegi dute kenkari gehigarria egitea, jasotako pentsioaren zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Zahartzaroko eta elbarritasunerako nahitaezko aseguruaren (SOVI) pentsioa eta beste pentsio batzuk batera jasotzen diren kasuetan, kenkariaren zenbatekoa honakoa eginez ezarriko da: lanbide arteko gutxieneko soldata ken Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onetsi zuen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuko 50. artikuluan aipatzen diren osagarrietarako eskubidea zehazteko zenbatetsi beharreko pentsioen zenbatekoen batura, betiere bi kopuru horien urteko zenbatekoak hartuta.

Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboek ez jaso izana zergaldian, 50. artikuluan aipatzen diren osagarrietarako eskubidea izateko jasotzen diren pentsioez gain, lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa den beste errentarik, salbuetsiak alde batera utzita.

Gizarte Ongizate, Familia, Gazteria eta Kirol Departamentuari eskatu ahalko zaio kenkari hori alde zuzenetik ordain dezala. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk eginen. Erregelamendu bidez arautuko da kenkaria baliatzeko prozedura, bai eta alde zuzenetik ordainketa eskatzeko eta lortzeko prozedura ere.

Zahartzaroko eta elbarritasunerako nahitaezko aseguruaren (SOVI) pentsioa nahiz harekin batera jasotzen diren bestelako pentsioak ez badira zergaldi osoan jaso, artikuluko honetako 1. idatz-zatiaren bigarren lerrokadan ezarritakoari jarraituko zaio.”

Zioak: Berriki onetsitako lege-aldaketan, kanpoan geratu ziren SOVIren alargun pentsioak ez, erretiro edo ezgaitasun pentsioak kobratzen dituzten pentsiodunak. Egitate hori baztertzailea da gizarteko sektore txiki horrentzat.

## 13. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 1. artikuluari zortzi-bi idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez 4. idatz-zati berria gehitzen baitzaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legeko testu bategineko

68. artikuluari, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Hona testu berria:

Zortzi-bi. 68.4. artikulua.

“4. Gizarte Segurantzaren autonomoen erregimen berezitik erretiro edo ezgaitasun pentsioak jasotzen dituzten subjektu pasiboek zilegi dute kenkari gehigarria egitea, jasotako pentsioaren zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Gizarte Segurantzaren autonomoen erregimen berezitik erretiro edo ezgaitasun pentsioak eta beste pentsio batzuk jasotzen diren kasuetan, kenkariaren zenbatekoa honakoa eginez ezarriko da: lanbide arteko gutxieneko soldata ken Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onetsi zuen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuko 50. artikuluan aipatzen diren osagarrietarako eskubidea zehazteko zenbatesi beharreko pentsioen zenbatekoen batura, betiere bi kopuru horien urteko zenbatekoak hartuta.

Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboek ez jaso izana zergaldian, 50. artikuluan aipatzen diren osagarrietarako eskubidea izateko jasotzen diren pentsioez gain, lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa den beste errentarik, salbuetsiak alde batera utzita.

Gizarte Ongizate, Familia, Gazteria eta Kirol Departamentuari eskatu ahaliko zaio kenkari hori alde aurretik ordain dezala. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk egingen. Erregelamendu bidez arautuko da kenkaria baliatzeko prozedura, bai eta alde aurretiko ordainketa eskatzeko eta lortzeko prozedura ere.

Gizarte Segurantzaren autonomoen erregimen bereziko erretiro edo ezgaitasun pentsioa nahiz harekin batera jasotzen diren bestelako pentsioak ez badira zergaldi osoan jaso, artikuluko 1. idatz-zatiaren bigarren lerrokadan ezarritakoari jarraituko zaio”.

Zioak: Lanbide arteko gutxieneko soldata baino pentsio txikiagoak jasotzen dituzten erregimen berezi horretako pentsiodunek baztertuta daude alargunek jasotzen dituzten pentsioen osagarriari dagokionez.

#### 14. ZUZENKETA

##### NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 1. artikuluari zortzi-hiru idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez 5.

idatz-zati berria gehitzen baitzaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legeko testu bategineko 68. artikuluari, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Hona testu berria:

Zortzi-hiru. 68.5. artikulua.

“5. Gizarte Segurantzaren nekazaritzako erregimen berezitik erretiro edo ezgaitasun pentsioak jasotzen dituzten subjektu pasiboek zilegi dute kenkari gehigarria egitea, jasotako pentsioaren zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Gizarte Segurantzaren nekazaritzako erregimen berezitik erretiro edo ezgaitasun pentsioak eta beste pentsio batzuk jasotzen diren kasuetan, kenkariaren zenbatekoa honakoa eginez ezarriko da: lanbide arteko gutxieneko soldata ken Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onetsi zuen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuko 50. artikuluan aipatzen diren osagarrietarako eskubidea zehazteko zenbatesi beharreko pentsioen zenbatekoen batura, betiere bi kopuru horien urteko zenbatekoak hartuta.

Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboek ez jaso izana zergaldian, 50. artikuluan aipatzen diren osagarrietarako eskubidea izateko jasotzen diren pentsioez gain, lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa den beste errentarik, salbuetsiak alde batera utzita.

Gizarte Ongizate, Familia, Gazteria eta Kirol Departamentuari eskatu ahaliko zaio kenkari hori alde aurretik ordain dezala. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk egingen. Erregelamendu bidez arautuko da kenkaria baliatzeko prozedura, bai eta alde aurretiko ordainketa eskatzeko eta lortzeko prozedura ere.

Gizarte Segurantzaren nekazaritzako erregimen bereziko erretiro edo ezgaitasun pentsioa nahiz harekin batera jasotzen diren bestelako pentsioak ez badira zergaldi osoan jaso, artikuluko 1. idatz-zatiaren bigarren lerrokadan ezarritakoari jarraituko zaio”.

Zioak: Lanbide arteko gutxieneko soldata baino pentsio txikiagoak jasotzen dituzten erregimen berezi horretako pentsiodunek baztertuta daude alargunek jasotzen dituzten pentsioen osagarriari dagokionez.

#### 15. ZUZENKETA

##### NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 1. artikuluari zortzi-lau idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez



aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legeko testu bategineko 68. artikuluko titulua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Hona testu berria:

Zortzi-lau.

“68. artikulua.- Lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoak diren pentsioengatikoen kenkariak”

Zioak: 68. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

## 16. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 1. artikuluari zortzi-bost idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legeko testu bategineko 75.2. artikulua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Hona testu berria:

Zortzi-bost idatz-zati berria.

75. artikulua. Baterako zerga-ordainketaren erregela bereziak.

“2. 62. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letran ezarzen den oinarrien guztizko zenbatekoa 270.000 eurokoa izan da familia unitate osoarentzat.”

Zioak: 62.1 c) artikulurako proposatu den aldatetarengatik. Izan ere, hartan, ohiko etxebizitzarengatikoen kenkariaren muga aldatzen dugu subjektu pasiboaren zerga-aldien batura aintzat hartuz; izan ere, 90.150 eurokoa izatetik 120.000 eurokoa izatera pasatzen da.

## 17. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 1. artikuluari zortzi-sei idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legeko testu bategineko 75,68. artikulua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Hona testu berria:

Zortzi-sei idatz-zati berria.

75. artikulua. Baterako zerga-ordainketaren erregela bereziak.

“Seigarrena. 71. artikuluko 1.a) eta 1.b) idatz-zatiek aipatzen dituzten familia unitateen kasuan, 55. artikuluko 5. idatz-zatiko 2. erregela aplikatzea-

ren ondorioz ezkontideetako edo bikote iraunkorreko kideetako batek ezin izan duenean osoki aplikatu 3. eta 4. idatz-zatietan aipatzen diren murrizketak, gerakina beste ezkontidearen edo bikote iraunkorreko kidearen gutxieneko pertsonalari eta familiarrari erantsiko zaio.

Zioak: 55 eta 62. artikuluetan eginiko aldaketak direla eta.

## 18. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 1. artikuluari zortzi-zazpi idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legeko testu bategineko 77,6. artikulua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Hona testu berria:

Zortzi-zazpi idatz-zati berria.

77. artikulua. Urte naturala baino laburragoa den zergaldia.

“6. 62. artikuluko 10. idatz-zatian aipatzen diren eta subjektu pasiboari dagozkion familia kenkariak gutxitu eginen dira zergaldia osatzen duten urte naturaleko egunen kopuruaren arabera, proportzionaliki, baterako zerga-ordainketaren kasuan izan ezik; izan ere, horretan osorik zenbatuko dira.

Aurreko lerrokadan ezarritakoaren arabera eginiko kenkariaren zenbatekoak gutxitu eginen du beste subjektu pasibo batzuek kontzeptu berberengatik egiten ahal dituzten kenkariaren zenbatekoa.”

Zioak: 55. eta 62. artikuluetan eginiko aldaketak direla eta.

## 19. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

#### PARLAMENTU-TALDEEK ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Foru lege proiektuko 1. artikuluko hamargarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legeko testu bategineko 78.5 artikulua ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Hona testua:

Hamar. 78.5. artikulua.

“5. Subjektu pasiboari leporatu ezin zaizkion arrazoi justifikatuengatik lanaren etekinak ezin badira behar diren zergaldietan jaso, kobrantza egiten den zergaldiari egotziko zaizkio, 17. artikuluko 2. idazatian ezarritakoa aplikatuz –hala behar izanez gero–, salbu eta subjektu pasiboak erabakitzen badu zergaldi haiei egozte. Horrela eginez gero, aitorten-likidazio osagarria burutuko da ez zehapen eta ez errekarurik ezarri gabe, ezta berandutza-korrituen sortzapenik ere.

Subjektu pasiboak bere ordaintzaileari aurreko zergaldietan lanaren etekinengatik jasotako etekinen itzulketak ordaindu behar izanez gero, itzulketak horiek itzulketak egiten den zergaldiari egotziko zaizkio, salbu eta itzultako lan-etekinak heldu diren zergaldiei egotzeko hautua egiten denean. Bi kasuetan, aipatu itzulketek lan etekinak gutxituko dituzte.

Aurreko lerroaldetan aipatzen den aukera erabili nahi bada, administrazioari adierazi beharko zaio, kobrantza edo itzulketak egin zen ekitaldiari dagokion aitorpenean.”

Zioak: Zuzenketa tekniko eta argigarria da. 78.5 artikuluko bigarren lerrokada aldatzen da argi uzteko lan etekinak haien ordaintzaileari itzultzeko kasuan, itzulketak hori egotzi ahalik zaiela, subjektu pasiboak erabakitzen duenaren arabera, bai itzulketak egiten den zerga-aldiari, bai itzultako lan etekinak heldu diren zerga-aldiei.

Gainera, berariaz adierazten da bi kasuetan aipatu itzulketek lan etekinak gutxiko dituztela.

## 20. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA  
SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEEK ETA  
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA  
FORU PARLAMENTARIEN  
ELKARTEAK AURKEZTUA**

Foru lege proiektuko 1. artikuluari hemeretzigarren idatz-zatia gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez hogeita zortzigarren xedapen gehigarria gehitzen baitzaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legeko testu bateginari –ekainaren 2ko 412008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen testu bategin hori–. Hona testua:

Hemeretzi. Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. Berrinbertsioa egiteko epea zabaltzea ohiko etxebizitza saltzen denean beste ohiko etxe-

bizitza bat erosteko edo zaharberritzeko diru-kopuruak ordaindu ondoren.

“Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko erregelamenduko 40.4 artikuluko azken lerrokadan ezarritako kasuan ohiko etxebizitzaren salmentatik heldu diren ondare-gehikuntzak berrinbertitzeagatik egiten den salbustea aplikatzeko, 2006ko urtarrilaren 1etik 2008ko abenduaren 31ra bitarte beste ohiko etxebizitza bat erosi edo zaharberritzeko ordaindutako diru-kopuruak, berrinbertitutako kopurutzat hartuko dira, baldin eta besterentzea egin aurreko lau urteko epean ordaindu badira.”

Zioak: Egungo abagune ekonomikoa eta higiezin merkatuaren egoera ikusita, ohiko etxebizitza transmititu ondorengo berrinbertsioarengatik salbuespen kasuetan, ohiko etxebizitza besterentzeko epea, aldi baterako, zabaltzen da, transmisio hori beste ohiko etxebizitza bat erosteko edo zaharberritzeko diru-kopuruak ordaindu ondoren gertatzen den kasuetan.

Ohiko etxebizitza besterentzeko epea luzatu ahal izateko, ondoko baldintzak bete beharko dira:

1. 2006ko urtarrilaren 1etik 2008ko abenduaren 31ra bitarte ohiko etxebizitza erosteko edo zaharberritzeko ordaindutako kopuruak izanen dira. Hau da, adibide moduan, sustatzaile bati ordaindutako kopuruak, etxebizitza bat zaharberritzen hasteko ordaindutako kopuruak edo jada erositako ohiko etxebizitza batengatik ordaindutako kopuruak, beste finantzatua izan nahiz ez izan.

2. Ordaindutako kopuru horiek erabiliko dira ohiko etxebizitzaren transmisioan lorturiko ondare-gehikuntzen salbustea aplikatzeko, behin ohiko etxebizitza saldu ondoren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko 40.4 artikuluko azken lerrokadan ezarritako bi urteko epean.

3. Kasu horietan, erregelamenduz ezarritako epea bi urtetik lau urtera zabaltzen da. Hau da, ohiko etxebizitza besterentzeko beste bi urte edukiko ditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko 40.4 artikuluko azken lerrokadan ezarritako bi urteko epea iragan delako hura transmititu behar duen subjektu pasiboak, ohiko etxebizitzaren transmisioan berrinbertitzeagatik salbuespena aplikatu nahi badu.

4. Kasu guztietan, etxebizitzak ohiko etxebizitza izan beharko du.

**21. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA****FORU PARLAMENTARIEN  
ELKARTEAK AURKEZTUA**

Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 2. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, zerga hori kentzea neurri ezegoki eta negatiboa da, kalte eginen baitio Foru Ogasunaren zerga-bilketarako ahalmenari, noiz eta zerga bidezko dirusarrerak izugarri jaitsi diren unean; eta bidegabea ere bada, ez baitio mesede eginen ekonomia- eta ondare-ahalmen handiko zergadunen gutxiengo txiki bati baino.

Rodríguez Zapatero Gobernuko lehendakaria izan da lehena ondareari buruzko zerga baliogabetzea sustatzen. Ondoren, aurrekontu-bazkideek (UPN eta PSN) bat egin dute neurri horrekin Nafarroan.

Neurri bidegabea da (gutxiengo ekonomiko pribilegiatu bati soilik egiten dio mesede), desegokia (kostu handia du, eta egungo ekonomia-desazelerazioa ikusita, ogasun publikoak ezin dio aurre egin), fiskalitatearen ezein ikusmolde progresistarekin hausten duena.

Nafarroak, tributu arloan autonomia baitu, eskumen osoa du Foru Komunitatean zerga hori kentzen den edo mantentzen den erabakitzeke.

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkartean uste dugu ondareari buruzko zerga mantendu behar dela.

Gure ustez, Nafarroako gizarteak nahi duena da neurri bidegabe eta ezegoki horretatik alden gaitzen.

Estatuan PSOEek eta Nafarroan UPNk eta PSNk erabakirik makurrena hartu dute.

Erabaki baitute zerga-opari mamitsua egitea gutxiengo ekonomikoki pribilegiatu bati (zergadunek % 3 eskas) eta ogasun publikoa zigortzea, hura izan arren herritar gehien-gehien funtsezko premiak (osasuna, hezkuntza, mendekotasuna...) artatzen dituzten politika publikoak eta zerbitzuak behar adina baliabidez hornitu eta finantzatu behar duena.

Diru-bilketa arloko galera 70 milioi euro baino gehiagokoa izanen da.

**22. ZUZENKETA****NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuko 2. artikulua kentzeko zuzenketa; izan ere, haren bidez, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru legea aldatzen da.

Zioak: Hiru arrazoi daude ondarearen gaineko zergapetzea berreskuratzeko:

- 1.- Birbanaketatik heldu den justizia soziala.
- 2.- Administrazioak dirua biltzeko duen premia.
- 3.- Zerga kentzea –proposatzen den bezalabere bidegabekeria bat izatea.

Bestalde, nabarmendu nahi dugu subjektu pasiboek ondareari buruzko aitorpena egiteko beharra; izan ere, indargabetzea proposatzen den artikuluan hura ere deuseztatzen baita. Paradoxikoki, ondarearen gaineko zergaren subjektu pasiboak zirenek aitorpena egiteko zeukaten betebeharretik salbuesteak ekar ditzakeen informazio-galerak kontraesankorrak dira lege proiektu honetan bertan proposatzen denarekin; izan ere, lege proiektuan proposatzen da finantza-entitateek eta aseguru-enpresek Ogasunari jakinarazi behar izatea gordailatzen dituzten kreditu, mailegu, balore, aseguru eta errenta guztiak.

**23. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA  
SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEEK ETA  
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA  
FORU PARLAMENTARIEN  
ELKARTEAK AURKEZTUA**

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 20.1 artikuluko azken lerrokada aldatzen duen Foru Lege proiektuko 3. artikuluari idatz-zati bat, bat bis, gehitzeko zuzenketa.

Bat bis. 20.1 artikulua, azken lerrokada.

“Ez dira kengarriak izanen paradisu fiskaltzat hartuak diren herrialde edo lurraldeetan egoitza duten entitateetako partaidetzek izandako balio-galtzearen ondoriozko galerak, salbu eta entitate horiek Merkataritza Kodearen 42. artikulua dioen arabera balio-galtzea eragin duen entitatearekin beren kontuak bateratzen badituzte, edo entitate horiek beren egoitza Europar Batasuneko

beste estatu kide batean izan eta subjektu pasiboak ez duen kreditatzen zio ekonomiko baliodunei erantzuten dietela entitatearen eratzak eta jardunak, eta enpresa jarduerak egiten dituela.”

Zioak: Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 20.1 artikulua arautzen du entitateen kapitaleko partaidetzen adierazgarri diren baloreen balio-galtzearen ondoriozko galerengatiko kenkaria.

Aipatu 20.1 artikuluko azken lerroakadari, zeina balio-galtzearengatiko kenkariaren aplikazioa zenbait kasutan murrizteari buruzkoa baita, ondoko tartekia erantsi zaio: “edo entitate horiek beren egoitza Europar Batasuneko beste estatu kide batean izan eta subjektu pasiboak ez duen kreditatzen zio ekonomiko baliodunei erantzuten dietela entitatearen eratzak eta jardunak, eta enpresa jardunak egiten dituela.”

Hori eransteke arrazoia da gerta litekeela Europar Batasuneko estatu kide batean izatea egoitza entitate batek, baina, aldi berean, egoitza duen lurralde edo herrialde hori zerga-paradisutzat hartu izatea. Europar Batasuneko zuzenbideko araudia ez urratzarren ezartzen da, oro har, ezen, entitateak Europar Batasuneko estatu kide batean baldin badu egoitza, kreditatu beharko duela zio ekonomiko baliodunei erantzuten dietela entitatearen eratzak eta jardunak eta enpresa jarduerak egiten dituela. Finean, helburua da ez urratzea Europar Batasunaren barruan ezartzeko askatasun eskubidea; izan ere, neurria (entitateetako partaidetzek izandako balio-galtzearen ondoriozko galerengatiko kenkaria) aplikatuko da baldin eta parte hartutako entitateak Europar Batasuneko estatu kide batean badu bere egoitza, baina betiere subjektu pasiboak kreditatu beharko du zio ekonomiko baliodunei erantzuten dietela entitatearen eratzak eta jardunak eta enpresa jarduerak egiten dituela.

## 24. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 50.1.b) artikulua aldatzen duen 3. artikuluko zazpigarren idatz-zatiari lerrokada bat gehitzeke zuzenketa. Hona testu berria:

Zazpi. 50.1.b) artikulua, azken lerroakada.

Lerrokada berria.

“Enpresa txikiaren izaera kontuan hartuta, aurreko ekitaldian 500.000 euroko edo hortik beherako negozio-bolumen garbia izan duten

enpresen karga tasa ehuneko 22koa izanen da. a’) azpiletran aurreikusitako kasuetan, 500.000 euroko zenbatekoa taldeko entitateen multzoari dago-kio. b’) azpiletraren kasuan, entitatearen parte-hartzearen ehuneko 25etik gora izan ahalko dute aurreko ekitaldian 500.000 euroko edo hori baino gutxiagoko negozio-zifra izan duten entitateek”

Zioak: Gure ustez, zuzenketa honetan zehazten diren negozio-zifren bi tartekak jaso behar ditu zerga-progresioak mikroenpresei dagokienez, enpresarik txikienei laguntze aldera.

## 25. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

#### PARLAMENTU-TALDEEK ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 62,1.a) artikulua aldatzen duen Foru Lege proiektuko 3. artikuluari idatz-zati bat, bederatzi bis, gehitzeke zuzenketa.

Bederatzi bis. 62.1.b) artikulua, azken lerroaldea.

“Artikulu honetan xedatutakoa ez da inolaz ere aplikatuko baldin eta parte hartutako entitatea erregelamenduz paradisu fiskaltzat kalifikatutako herrialde edo lurralde bateko egoiliarra denean, non eta ez duen bere egoitza Europar Batasuneko beste estatu kide batean eta subjektu pasiboak ez duen kreditatzen zio ekonomiko baliodunei erantzuten dietela entitatearen eratzak eta jardunak eta enpresa jarduerak egiten dituela.”

Zioak: Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 62.1 artikulua arautzen du entitate ez-egoiliarren izeneko baloreen eskualdatzetik heldu diren atzerriko errenten eta dibidenduen gaineko nazioarteko zergapetze bikoitza ekiditeko salbuespena. 62.1.b) artikuluko azken lerroakadari, zeina zergapetze bikoitza ekiditeko salbuespenaren aplikazioa zenbait kasutan murrizteari buruzkoa baita, ondokoa erantsi zaio: “non eta ez duen bere egoitza Europar Batasuneko beste estatu kide batean eta subjektu pasiboak ez duen kreditatzen zio ekonomiko baliodunei erantzuten dietela entitatearen eratzak eta jardunak eta enpresa jarduerak egiten dituela.”

Hori eransteke arrazoia da gerta litekeela Europar Batasuneko estatu kide batean izatea egoitza entitate batek, baina, aldi berean, egoitza duen

lurralde edo herrialde hori zerga-paradisutzat hartua izatea. Europar Batasuneko zuzenbideko araudia ez urratzearen ezartzen da ezen, entitateak Europar Batasuneko estatu kide batean baldin badu egoitza, subjektu pasiboak kreditatu beharko duela zio ekonomiko baliodunei erantzuten dietela entitatearen eratzek eta jardunak eta enpresa jarduerak egiten dituela.

Finen, helburua da ez urratzea Europar Batasunaren barruan ezartzeko askatasun eskubidea; izan ere, neurri hori —entitate ez-egoiliarren izeneko baloreen eskualdatzetik heldu diren atzerriko errenten eta dibidenduen gaineko nazioarteko zergapetze bikoitza ekiditeko salbuespena— aplikatzen da baldin eta entitateak Europar Batasuneko beste estatu kide batean badu bere egoitza, baina betiere subjektu pasiboak kreditatu beharko du zio ekonomiko baliodunei erantzuten dietela entitatearen eratzek eta jardunak eta enpresa jarduerak egiten dituela.

## 26. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA  
SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEEK ETA  
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA  
FORU PARLAMENTARIEN  
ELKARTEAK AURKEZTUA**

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 66.3.a) artikulua aldatzen duen Foru Lege proiektuko 3. artikuluko hamaika bis idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hamaika. 66.3 artikulua.

“3. Aurreko idatz-zatian sartzen ez diren berritasun teknologikoko jarduerak egiteak eskubide emanen du zergaldian eginiko gastuen ehuneko hamarreko kenkaria egiteko kuota osoan, idatz-zati honetan ezarritako moduan egin ere.

Berritasun teknologikotzat jotzen da produktu edo produkzio prozesu berriak edo lehengo hobekuntza teknologiko nabarmenak lortzea emaitza duen jarduera. Berritzat joko dira lehengo produktu eta prozesuen aldean mamizko ezaugarri teknologiko diferenteak ageri dituztenak. Jarduera honetan sartuko da produktu eta prozesu berriak plano, eskema edo diseinu batean gauzatzea, eta bai merkaturatzerik gabeko prototipoak eta hasierako erakustaldiak egiteko proiektuak edo proiektu pilotuak eta zenbait industriatako erakusgaiak, hala nola oihalgintza eta zapatagintzakoak, larruzurketagintzakoak, larrukigintzakoak, jostailugintzakoak, altzairugintzakoak eta zuraren industriako

erakusgaiak, betiere baldin ezin bihurtu edo erabili badira aplikazio industrialetarako edo merkatuan esplotatzeko.

Kenkariaren oinarria osatuko du aldi horretan berritasun teknologikoko jardueratan gastatutako zenbatekoak, ondoko kontzeptuei dagozkienak hain zuzen ere:

a) Diagnostiko teknologikoko jarduerak, soluzio teknologiko aurreratuak identifikatu, definitu eta orientatzera bideratuak, zein ere emaitza duten.

b) Diseinu industrialia eta produkzio prozesuen ingeniari-tza, horien barnean dela plano, marrazki eta euskarriak itxuratzea, produktu bat fabrikatu, saiatu, instalatu eta erabiltzeko eta zenbait industriatako erakusgaiak, hala nola oihalgintza eta zapatagintzakoak, larruzurketagintzakoak, larrukigintzakoak, jostailugintzakoak, altzairugintzakoak eta zuraren industriako erakusgaiak egiteko behar diren deskripzio elementuak, zehaztapen teknikoak eta funtzionamendu ezaugarriak definitzekoak.

“c) Teknologia berria erostea, besteak beste, patente, lizentzia, know-how eta diseinuak. Subjektu pasiboarekin loturiko pertsonen edo entitateen ordaindutako zenbatekoek ez dute kenkarietarako eskubiderik emanen. Kontzeptu horri dagokion oinarria ezin izanen da urtean milioi bat eurotik gorakoa izan.

d) ISO 9000, GMP edo gisakoen kalitatea ziurtatzeko arauak betetzearen gaineko ziurtagiria lortzea, arau horiek ezartzeko gastuak alde batera utzita.”

Zioak: Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 66.3 artikulua arautzen du berritasun teknologikoko jarduerak egiteagatik kuota osoaren kenkaria. 66.3 artikuluko bigarren lerokada eta b) letra aldatzen dira, berritasun teknologikokoaren kontzeptuaren barnean sartzearren zenbait industriatako erakusgaiak, hala nola oihalgintza eta zapatagintzakoak, larruzurketagintzakoak, larrukigintzakoak, jostailugintzakoak, altzairugintzakoak eta zuraren industriako erakusgaiak. Kontuan hartuta gaur egun badaudela, industriako beste sektore batzuetako erakusgaiak ere jaso dira, industriako oihalgintzako erakusgaiak sartuak daudela berritasun teknologikokoaren kontzeptuan, industriako beste sektore batzuetako erakusgaiak ere erantsi ditugu, sektore horietako salmentetan muntakoak izan daitezkeelako erakusgai horiek.

**27. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA  
SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEEK ETA  
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA  
FORU PARLAMENTARIEN  
ELKARTEAK AURKEZTUA**

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 66.4.a) artikulua aldatzen duen Foru Lege proiektuko 3. artikuluari idatz-zati bat, hamaika bis, gehitzeko zuzenketa.

Hamaika bis. 66.4.a) artikulua

“a) Berritasun teknologiko edo zientifiko nabarmenik ez dakarten jarduerak. Bereziki produktu edo prozesuen kalitatea, lehengo produktu edo produkzio prozesu bat hobetzeko errutinazko ahalgintza eta lehengo produktu edo produkzio prozesu bat bezero batek berariaz eskatutakoetara moldatzeko lana, aldiro edo sasoika egiten diren aldaketak, salbu eta zenbait industriako erakusgaietan eginiko aldaketak, hala nola oihalgintza eta zapatagintzakoetan, larru-zurraketagintzakoetan, larrukigintzakoetan, jostailugintzakoetan, altzairugintzakoetan eta zuraren industriako erakusgaietan, eta, bestetik, lehengo produktuak antzeko beste batzuetatik bereizteko egiten diren itxura hutseko edo garrantzi gutxiko aldaketak.”

Zioak: Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 66.4.a) artikulua arautzen ditu ikerkuntzakoak, garpenekoak edo berrikuntza teknologikokoak ez diren jarduerak. Tarte-esaldi bat gehitu da a) letran, zehazteko ezen berritasun teknologiko izan ahalko direla oihalgintzako eta zapatagintzako erakusgaietz gain, larru-zurraketagintzako, larrukigintzako, jostailugintzako, altzairugintzako eta zuraren industriakoak ere. Finean, industriako beste sektore batzuetako erakusgaiak ere jaso dira, industriako sektore horietako salmentetan muntakoak izan daitezkeelako erakusgai horiek.

**28. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA  
SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEEK ETA  
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA  
FORU PARLAMENTARIEN  
ELKARTEAK AURKEZTUA**

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 106 bis artikulua

aldatzen duen Foru Lege proiektuko 3. artikuluari idatz-zati bat, hamabost bis, gehitzeko zuzenketa.

Hamabost bis. 106. bis artikulua. Araubide fiskalaren aplikazioa.

Kapitulu honetan ezarritakoa ez da aplikagarri izanen Espainian egoitzarik ez duten entitateek Europar Batasuneko beste estaturen batean egoitza dutenean, baldin eta subjektu pasiboak kreditatzen badu zio ekonomiko baliodunei erantzuten dietela entitatearen eritzeak eta jardunak eta enpresa jarduerak egiten dituela.

Zioak: Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko X. tituluko III. kapituluko 106 bis artikulua ezartzen duenez, nazioarteko gardentasun fiskaleko araubidea ez da aplikatuko baldin eta Espainian egoitzarik ez duen entitateek Europar Batasuneko beste estatu kideren batean badu bere egoitza, non eta ez dagoen lurralde fiskal gisa sailkatutako lurralde batean. Gerta liteke, hortaz, Europar Batasuneko estatu kide batean izatea egoitza entitate batek, baina, aldi berean, egoitza duen lurralde edo herrialde hori zerga-paradisutzat hartu izatea. Europar Batasuneko zuzenbideko araudia ez urratzearen ezartzen da ezen, nazioarteko gardentasun fiskala aplikatze aldera, subjektu pasiboak kreditatu beharko duela zio ekonomiko baliodunei erantzuten dietela entitatearen eritzeak eta jardunak eta enpresa jarduerak egiten dituela, baldin eta Espainian egoitzarik ez duen entitateek Europar Batasuneko beste estatu kideren batean badu bere egoitza. Finean, helburua da ez urratzea Europar Batasunaren barruan ezartzeko askatasun eskubidea; izan ere, nazioarteko gardentasun fiskala ez da aplikatuko baldin eta entitateek Europar Batasuneko beste estatu kide batean badu bere egoitza, baina betiere subjektu pasiboak kreditatu beharko du zio ekonomiko baliodunei erantzuten dietela entitatearen eritzeak eta jardunak eta enpresa jarduerak egiten dituela.

**29. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA  
SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEEK ETA  
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA  
FORU PARLAMENTARIEN  
ELKARTEAK AURKEZTUA**

Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeko 21. artikulua aldatzen duen Foru

Lege proiektuko 10. artikuluko laugarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Lau. 21. artikulua. Berrinbertsioaren ziozko salbuespena.

“Ondare elementuetako kostubidezko eskualdaketatik agerian jarritako ondare-gehikuntza zergagai direnak salbuesirik geldituko dira, baldin eta eskualdaketa horien zenbatekoa Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 36. artikuluan xedatu bezala eta bertan ezarritako baldintzak beterik berrinbertitzen bada.”

Zioak: Zuzenketa teknikoa da. Fundazioen berrinbertsioengatik salbuespenak aplikatu ahal izateko, berrinbertsio horiek egiteko baldintzei dagokienez, uste dugu zuzenagoa dela, teknikoki, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 70 bis artikulua aipamena kentzea; izan ere, nahiz eta 70 bis artikulua ondare elementuen berrinbertsioari buruzko zenbait alderdi arautu, 70 bis artikuluko baloreen eskualdaketatik berrinbertsioen kenkaria aplikatzen zaie ehuneko 30, 28, 24 edo 18ko zerga-tasa kargatzen zaien entitateei, fundazioei ehuneko 10ekoa aplikatzen zaielako.

Hortaz, teknikoki zuzenagoa eta argiagoa da 10/1996 Foru Legeko 21. artikulua baldin eta 24/1996 Foru Legeko 36. artikulua aipamena soilik egiten bada.

### 30. ZUZENKETA

#### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEEK ETA  
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA  
FORU PARLAMENTARIEN  
ELKARTEAK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuari artikulua bat, 12.a, gehitzeko zuzenketa. Kooperatiben Zerga-araubidea Arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legeari 12. artikulua gehitu zaio. Xedapen gehigarrietan beste bat gehitu da, hamargarrena hain zuzen ere. Kooperatiba mistoen tributu-araubidea.

12. artikulua. 9/1994 Foru Legea, ekainaren 21ekoa, kooperatiben zerga-araubidea arautzen duena.

2008ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioetarako, Kooperatiben Zerga-araubideari buruzko ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legeari xedapen gehigarri bat, hamargarrena, gehitu zaio. Hona haren edukia:

Bat. Hamargarren xedapen gehigarria. Kooperatiba mistoen tributu-araubidea.

“Kooperatiba mistoei foru lege honetan ezarritako tributu-araubidea aplikatuko zaie, ondoko berezitasunarekin: kooperatiba-emaizaren zatiak, boto eskubidea atxikia duten zati sozialen bazkide titularrek dituzten botoen proportzioari dagokiona, kooperatibaz kanpoko emaitzen balio bera izanen du, sozietateen gaineko zerga ordainaraztearen ondorioetarako.”

Zioak: Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legeko 79. artikulua ezartzen du zer merkataritza-araubidea duten kooperatiba mistoek, era honetara defini baitaitezke: kooperatiba mistotzat hartuko dira bazkide gutxiengo batek jarritako kapitalaren arabera batzar orokorreko boto eskubidea izatea onartzen dutenak, dela modu eskusiboan, dela bazkide horiei lehentasuna emanaz. Kapital hori kontuko idaztuharren edo tituluen bidez egonen da ordezkaturik, balore-merkatua arautzen duen legediaren arabera. Bazkide gutxiengo horien kasuan –botoa atxikia duten zati sozialetan datza horien titulartasuna–, bai titularren eskubide eta betebeharrak, bai ekarpenen araubidea, estatutuetan arautuko dira, eta, osagarri moduan, sozietate anonimoen legedian akzioei buruz xedatutakora joko da.

Zuzenketa honen helburua da kooperatiba misto horien zerga-araubidea ezartzea, eta hartara ezartzen da gainontzeko kooperatibei aplikatzeko zaien tributu-araubide bera aplikatuko zaiela, baina munta handiko berezitasun batekin, boto eskubidea atxikia duten zati sozialak dituzten bazkide “kapitalistek” jarritako kapitalaren berezitasunetik heldu dena hain zuzen ere. Horregatik esaten da ondokoa: kooperatiba-emaizaren zatia, boto eskubidea atxikia duten zati sozialen bazkide titularrek dituzten botoen proportzioari dagokiona, kooperatibaz kanpoko emaitzen balio bera izanen du, sozietateen gaineko zerga ordainaraztearen ondorioetarako.

Hortaz, bazkide “kapitalistek” kooperatibaren emaitzetan duten partaidetzak, zeina jarritako kapitalaren arabera izanen baita eta ez jardueko kooperatibizatuan duten parte-hartzearen arabera, kooperatiba-emaizak izatetik aldentzen dituela zerga-ondorioetarako, eta kooperatibaz kanpoko emaitza gisa hartu behar direla, sozietateen gaineko zergaren likidazioan horrek dituen ondorio eta guzti. Finean, entitatearen emaitzen zati horrek “kooperatiba-espirtuaren funtsa” galtzen du zerga-ondorioei begira, eta kooperatibaz kanpoko emaitza gisa ordaindu behar ditu zergak, kooperatibei buruzko zerga-arauei jarraikiz.

**31. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA  
FORU PARLAMENTARIEN  
ELKARTEAK AURKEZTUA**

12. artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“12. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako likidazio oinarri orokorra gaurkotzea.

Urtero, Nafarroako Gobernuak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako 59.1 artikuluko likidazio oinarrien eta tipo indardunen taula gaurkotuko du, horretarako behar den deflaktazioa eginez likidazio oinarrietan, Nafarroako Foru Komunitateko kontsumorako prezioen indizearen urteroko aldakuntzaren ehunekoaren arabera.

Gaurkotze hori eginen da behar den foru dekretua urte bakoitzeko urtarrilean onetsiz eta argitaratuz.

Taula berria aplikatuko zaio aurreko urteko urtarrilaren 1ean hasitako zergaldiari.”

Zioak: Modu egonkor eta iraunkorrean bermatzea prezioen inflazioak ez duela eragin gisa izanen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan presio fiskala gehitzea.

**32. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA  
SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEEK ETA  
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA  
FORU PARLAMENTARIEN  
ELKARTEAK AURKEZTUA**

Foru Lege proiektuko bigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Bigarren xedapen gehigarriari 3. idatz-zatia erantsi zaio. Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga: kuoten hobaria errepide bidezko garraioan.

Xedapen gehigarria

Kuoten hobaria errepide bidezko garraioan. Idatz-zati bat gehitzea, 3.a.

“3. Foru lege honek indarra hartzen duenean, xedapen gehigarri honetan ezarritako hobaririk gabe likidatutako 2008ko kuotak ehuneko 50 murriztuko dira besterik gabe, likidazioaren unetik aitzinako eraginarekin, eta horretarako ez da beharrezkoa izanen hori horrela dela deklaratzeko ekintza berariazkorik, eta ez da aldatuko murriztu

gabeko zatiaren likidazioen balioa, eragingarritasuna eta galdagarritasuna.

Murrizketa horren eraginez diru kopururen bat itzuli behar baldin bada, bestelako izapiderik gabe hartuko da itzulketaren egiteko erabakia, eta berehala itzuliko da.

Zioak: Zenbait zerga aldatu eta beste tributu neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuko bigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, 2008ko jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren kuotetan %50eko hobaria aplikatuko zaie subjektu pasiboari, baldin eta 7/1996 Foru Legearen bidez onetsirik tarifaren lehen ataleko 721. eta 722. taldeetan sailkatutako jarduerengatik ordaintzen baldin badute jarduera ekonomikoaren gaineko zerga.

Zuzenketa helburu du berehalako eragingarritasuna ematea hobari horri, bestela gerta baitaiteke subjektu pasibo horiei jarduera ekonomikoaren gaineko zerga dela-eta likidazioak egin izana hobaria ezarri duen foru legea onetsi aurretik.

Horregatik ezarri da ezen, jardueraren gaineko zergako kuoten likidazioa egin baldin bada, kuotak ehuneko 50 murriztuko direla besterik gabe, likidazioaren unetik aitzinako eraginarekin, eta horretarako ez dela beharrezkoa izanen hori horrela dela deklaratzeko ekintza berariazkorik, eta ez da aldatuko murriztu gabeko zatiaren likidazioen balioa, eragingarritasuna eta galdagarritasuna. Diru kopururen bat itzuli behar baldin bada, bestelako izapiderik gabe hartuko da itzulketaren egiteko erabakia, eta berehala itzuliko da.

Horren bidez, konponbide azkarra eman nahi zaie zenbait egoerari, ondokoei esaterako: murriztu beharrezko kuoten zati bat borondatezko epearen barruan geroratzeko eskaerak (geroratzeko eskaera artxibatu egin beharko da, ez baita egonen zor geroragarri); likidatutako kuota osoa ordaindu deneko egoera (ordaindu behar ez zen ehuneko 50 itzuli beharko da), edo kuotaren ehuneko 50 ordaindu deneko egoera (ez dadin gertatu nahitaez ordaintzeko aldiko errekaruen sortzapena, gainontzeko ehuneko 50ari dagokionez).

**33. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuko hirugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, horiek ez dira enpresak sustatzeko sozietateak, ezpada finantza-entitateak,



inbertsio edo mailegu bat egin dutenak, zeinaren itzulketari, modu eufemistikoan, itzaleko ordainsaria deitzen baitzaio.

### **34. ZUZENKETA**

#### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

“Xedapen gehigarria.

Foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igorriko dio Nafarroako Parlamentuari, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan gutxieneko pertsonal eta familiarrek duten tratamendua aldatuko duena.

Aldaketa horren bidez, gutxieneko pertsonal eta familiarren tratamendua eginen da zergako

kuota osoaren kenkari gisa, eta ez zerga oinarriaren murriztapen gisa”.

Zioak: Gehikortasun-printzipioaren aurkakoa da indarreko sistema; zenbat eta handiagoa izan zergadunaren errenta, handiagoa da gutxieneko pertsonal eta familiarretatik eratorritako aurrezpen fiskala.

### **35. ZUZENKETA**

#### **NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu neurri batzuk hartzeko Foru Lege azken xedapenetako bigarreneko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

2. Foru lege honen 1. artikuluko ondoko idatz-zati hauetan ezarritakoak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak: bi, sei-bost, zortzi, zortzi-bi, zortzi-hiru eta zortzi-lau.

Zioak: Laneko kenkariak ezartzen dituzten 62.5 eta 68. artikuluetan eginiko aldaketak direla eta.



**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan musikak duen egoerari buruzko azterlan bat egin dezan, zeinaren ondorioz prestakuntzari, interpretazioari, zabalkundeari eta sorkuntzari buruzko plan bat egingen baita.**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan musikak duen egoerari buruzko azterlan bat egin dezan, zeinaren ondorioz prestakuntzari, interpretazioari, zabalkundeari eta sorkuntzari buruzko plan bat egingen baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan musikak duen egoerari buruzko azterlan bat egin dezan, horren ondorioz prestakuntzari, interpretazioari, zabalkundeari eta sorkuntzari buruzko plan bat egiteko, Legebiltzarren Osoko Bilkuran eztabaida eta onets dadin.

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak jabeldura bat aurkeztu zuen iragan azaroaren 13an, Nafarroako Gobernuak musika-

ren arloan egiten duen kultur politikari buruzkoa. Bertan espresuki nabarmentzen zen kultur jardueren –musikaren arlokoak, kasu honetan– batuketa ez dela, berez, kultur politika baten adierazle; aldiz, sarri kultur politika berriazko baten faltaren isla izaten dela.

Gure ustez, horixe da agerian geratu zen Gobernuaren adierazpenen ostean: alegia, musikaren arloan hainbat ekimen gauzatzen diren arren, ez dagoela alde zehaztutako planei erantzun dion jarduera-ildo garbirik.

Gure jabelduran aipatu bezala, kultur politiken xedea, musikaren arloan, bederen ondoko helburuak betetzea izan beharko luke:

1) Herritarrek musikaz gozatzeko duten aukera zabaltzea eta demokratizatzea gizartearen esparru guztietan, batez ere behar handiagoa dutentan, eta publiko berriak sor daitezela ahalbidetzea.

2) Musikaren arloko irakaskuntza profesionalen maila handia bermatzea, eta arlo horretako hezitzaile, ikertzaile, interpretatzaile eta egileentzako espezializazio eta/edo hobetze ikasketak lagundu eta sustatzea.

3) Interpretatzaile nafarren laneratzea, profesionalizazioa, egonkortasuna eta interes artistikoak erraztea.

4) Nafarroako ondare musikaren berreskuratzea, zaintza eta zabalkundea erraztea eta sustatzea.

5) Musika garaikidearen sorkuntza eta zabalkuntza sustatzea eta bultzatzea, gaur egungo musika guztien espektro zabaletik ulertuta, musika klasikoa izan edo bestelako musikak izan.

6) Kultur industria egokia sortzea musikaren inguruan, bai zuzeneko musikari dagokionez, bai

musikaren arloan gauzatzen diren enpresa-jardueren babesari dagokionez.

Jabelduraren eztabaidan argi geratu zen moduan, egia bada adostasun zabala dagoela helburu horien egokitasunari eta argitasunari dagokionez, beharrezkoa da formulazio hutsean ez geratzea: aldiz, ezinbestekoa da, lehenbizi, sakontzea Nafarroako musikaren arloko politikaren errealitatean eta, ondoren, ezartzea zeintzuk diren benetako beharrianak, bai eta proposaturiko helburuak erdiesteko hartu beharreko neurriak ere.

Lortu nahi diren helburuak erdiesteko, beharrezkoa da aldez aurretik gure erkidegoko musikaren arloko errealitatea sakonki ezagutzea eta, azterketa horren ondorio gisa, lan plangintza bat prestatzea, zeinetan koordinatu ahal izanen diren esparru desberdinetako jarduerak, finkatutako helburuei begira.

Beharrezkoa da musikak Nafarroan duen errealitatearen ikuspegi orokorra ezartzea, ikuspegi horretatik abiatuta, gauzatzen diren ekintzak eta jarduerak baliabideen eta erabilgarritasunen arabera taxutzeko, halako moduz non lehenatasuna emanen zaien aipatu helburuak erdiestea xede dutenei.

Hori dela eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Gobernuaren musika arloko kultur-politikari buruzko jabeldura baten ondorioz, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak eztabaiatu eta bozkatzeko.

#### Mozioaren testua

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz du azterlan-txosten zabal bat egin dezan Nafarroako musika arloko politikaren garapenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Txosten horretan honako alderdi hauek landuko dira bederen:

a) Gure ikasketa musikalen sistemaren errealitatea eta gabeziak ezagutzen, musika eskoletatik hasita kontserbatorio profesionalera eta goi mailakora arte, baita musika eskola pribatuena ere. Halaber, ezagutu behar dira ikasketa hauekin lortu nahi diren helburuak eta maila bakoitzari dagozkion eginkizunak.

b) Ezagutzea Nafarroako ikasleen espezializazio- edota ikasketak zabaltzeko beharrianak eta horiek ase ahal izateko moduak.

e) Zentro horietako ikasleek musikaren arloan duten lanbideratzeari buruzko datuak ezagutzea, baita lanbideratzeko eskaintzen zaizkien aukerak

eta laguntza eta pizgarriak emateko dauden aukerak ere.

d) Nafarroako musika-talde profesional edo erdi-profesionalen egoera ezagutzea, baita horien planteamendu profesional eta artistikoak, musikaren arloan betetzen duten eginkizuna eta dituzten aukerak ere.

e) Musikaren arloko praktika amateurraren jarduerak ezagutzea, baita bere garrantzia errealitatean ere, gozatze pertsonalari, publiko berriak sortzeari eta jarduera ekonomikoa sortzeari dagokionez.

f) Nafarroan musika zabaltzeko egin diren jarduerak ezagutzea eta zenbatestea, baita publikoek batez ere ekonomia- edo lurraldetasun-arrazoien-gatik zailtasun handiagoak dituztenek, espero dutena eta publiko horiek musika-jardueretarako duten irismen errealitate ere.

g) Nafarroako musikak eta musikariek nazioan eta nazioartean duten zabalkundea, baita lanerako izaten dituzten mugak eta aukerak ere.

h) Musika ondare historikoaren eta garaikidearen egoera ezagutzea eta hura berreskuratzeko, aztertzeko, argitaratzeko, grabatzeko, jotzeko eta zabaltzeko beharra baloratzea.

i) Musika sorkuntza garaikidearen egoera ezagutzea, bai musika akademikoari bai gaur egungo bestelako musikei dagokionez.

j) Nafarroako musika arloko industriaren errealitatea ezagutzea, baita bere zenbatespena eta azpisektore honen eragina edo garrantzia ekonomikoa ere.

k) Musikara bideratzen diren baliabideak ezagutu eta zenbatestea, bai administrazio publikoetatik datozenak –Nafarroako Gobernuaren, toki entitateak–, bai entitate pribatuetatik datozenak –fundazioak, enpresak eta abar–.

l) Ezagutzea eta aztertzea zer aukera dauden neurri fiskalak ezartzeko eta funts pribatuek ekarpenak egin ditzaten bultzatzeko, Nafarroan musikaren arlorako ezarritako helburu orokorrak betetzen laguntze aldera.

m) Espainiako beste autonomia erkidegoetan eta Europar Erreferentzia diren zenbait eskualdetan musikaren arloan gauzatzen ari diren ekimenak, esperientziak eta politikak ezagutu eta aztertzea, Nafarroako Foru Komunitatean egin beharreko politiken eredu edo orientabide gisa baliagarri izan daitezkeen.

2) Azterlan-txostenak jaso behar du, emaitzen arabera, "Nafarroako Foru Komunitatean

musikaren arloko politika egiteko gomendioei buruzko txostena.”

Orientabide gisa, hona hemen jaso beharko lituzkeen zenbait gai:

a) Gastuaren optimizazioa:

– Entitateen arteko lankidetzak hobetzeko beharra, erabakiak hartzen dituzten organoen arteko elkarrizketa eta programak egiten dituzten organoen arteko hitzarmenak bultzatzeko, errealak ez diren kosturik ez izateko, programazio mistoak sustatzeko eta programazioen bikoiztasuna saihesteko.

– Dirulaguntza izenduna duten entitateentzat ezartzea pizgarri/penalizazio kontzeptua, dirulaguntzaren erabilera eragingarriaren arabera.

– Kontrolak ezartzea, sektorearen inflazioa eraginen duten nagusitasunak saiheste aldera.

b) Egonkortasuna ematea musikaren arloko entitateei eta jardueri.

– Legegintzaldirako aurrekontu-konpromisoa, musikaren arloko entitate nagusiei bermatuko dizkiena dirulaguntzen bidez jasotzen dituzten dirurarrak, eta ahalbidetuko diena epe luzeko programak egitea.

c) Deszentralizazio geografikoa:

– Musika-ziklo egonkorak bultzatzea Tuteran, Lizarran eta Zangozan.

– Urteko ziklo bat bultzatzea, “Nafarroako Orkestra Sinfonikoa eta Iruñeko Orfeoa Nafarroan barrena” izena izanen duena eta mundu guztiarentzako moduko programa eta prezioak izango dituen.

– Eskolentzako eta familientzako kontzertuak izeneko emanaldi saila Tuteran sustatzea.

c) Gizarteko maila guztiek musikarako sarbidea izatea.

– Prezio merkeko zikloak sartzeko Baluarteko programazioetan, Nafarroako zenbait entitateekin lankidetzan, esate baterako: Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, Iruñeko Ganbera Abesbatza, Kontserbatorioko Orkestra eta Nafarroako Abesbatzen Elkarteak.

d) Nafarroako musikaren zabalkundea bultzatzea.

– Baluarteko Ganbera-aretoa bilakatzea Nafarroako ahots- eta tresna-taldeak bultzatzeko agertoki.

– Nafarroako musikagileen ondare historikoa eta garaikidea grabatzeko eta argitaratzeko hitzarmenak egitea.

– “Nafarroako Musika Artxibo eta Dokumentazio Zentroa” sortzea, zeina arduratuko den merkatuan aurkitzeko zailak diren musikagile nafarren partiturak berreskuratzeaz, argitaratzeaz eta esku-ragarri jartzeaz.

– Nafarroako Abesbatzen Elkarteak antolatzen duen Abesbatzen Jaialdia bultzatzea. – Julián Gayarre eta Pablo Sarasate lehiaketek buruzko berrikusketa sakona egitea.

e) Musika enbaxada kultural gisa.

– Nafarroako entitate musikalak kanpora atera daitezela sustatzea.

3) Azterlan-txostenak jaso beharko du gomendio bakoitzaren gaineko ebaluazio ekonomikoa, gomendio horiek gauzatzeak gastu bat dakarrenean.

4) Aipatu azterlan-txostena Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean aurkeztuko da, 2009ko irailaren 30a baino lehen, 2010eko aurrekontuetan sartze aldera plan horretan jasotako ekintzak aurrera eramanez ahal izateko beharrezkoak diren kontusailak.

Iruñean, 2008ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da adingabeak adoptatu edo/eta hartzeko prozesuak hobetu ditzan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita adingabeak adoptatu edo/eta hartzeko prozesuak hobetu ditzan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen da adingabeak adoptatu edo/eta hartzeko prozesuak hobetu ditzan, eta, lehenbizi, familia adoptatzaileak eta/edo hartzaileak azter ditzan eta, ondoren, familia horiek eta arlo horretan gauzatzen diren ekimen partikular edo instituzionalak babestu eta lagundu ditzan, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida eta onets dadin.

#### Zioen azalpena

Hala adopzioa, nazionala edo nazioartekoa, nola familia-harrera belaunaldien arteko elkartasunaren zutabe funtsezko bat dira, babesik ez duten adingabeen zaintzan eta garapen pertsonalean oinarritzen baitira. Adopzioaren garrantziaren funtsa itxura paradoxa den zerbaitean oinarritzen da: badira haurrak izan nahi dituzten bikoteak baina ezin dutenak hori lortu, eta, aldiz, badira haurrak, zeinak beren gurasoek tratatu txarrak ematen dizkieten, abandonatzen, esplotatzen edota baztertzen dituzten.

Hala ere, herrialde garatuetan gertatzen ari diren aldaketa sozialak –jaiotza-kontrola, ernalketa teknika berriak, ama ezkongabeen egoera sozi-

ala eta etikoa aldatzea eta hobetzea eta familiei laguntzeko baliabide berrien ezarpena direla-eta–, agerian utzi dute adoptatu ahal daitezkeen haurren kopurua txikiagoa dela haur bat adoptatuko luketen bikoteena baino.

Bestalde, familia-harrera da jatorrizko familia-rengandik bereizi behar izan den adingabe bat familia-ingurune batean kokatzea. Inplikaturiko alde guztien baimena bada, familia-harrera boluntarioa bada eta entitate publiko baten aurrean formalizatzen bada, harrera administratiboa esaten zaio; aldiz, gurasoak edo tutorea ez badira ados, harrera epaileak erabakitzen du, entitate publikoak proposatuta, eta horri harrera judiziala esaten zaio.

Harrera bakuna da edo itzultzeko aurreikuspena du behin-behinekoa denean, ondorioztatzen delako beren familiara itzuliko direla, dela epe luzeagorako babes neurri bat finkatu bitartean jazotzen delako. Behin betikoa edo iraupen luzeakoa da bere familiara itzultzeko aukera txikia denean eta hartzaileekin modu egonkorrean egoten denean, filiazioaren legezko aldaketarik gabe, bere kabuz moldatu arte edo neurri egokiago bat hartu arte.

Bada ere adopzioaren aurretiko harrera, adopzioa eratzen den edo adingabearen eta familia berriaren integrazioaren bideragarritasuna baloratzen den bitartean egiten dena. Adopzioa da adoptatzaileen eta adoptatuaren artean filiazio-lotura bat sortzen duen babes-baliabidea. Aldi berean, adoptatuaren eta bere jatorrizko familiaren arteko lotura juridikoak desagertu egiten dira.

Adingabeen eskubideak bermatu eta haiek ahultasunetik babeste aldera, administrazio publikoek egoera horiei lege-babesa emanen dieten arauak garatu dituzte. Besteak beste, Nafarroako Foru Komunitateak gai horri buruzko legeak onetsi ditu eta, hala, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen IV. titularen IV. kapituluko laugarren atalak harrera arautzen du, bereziki familiakoa, tutoretza eta zaintza burutzeko modua den aldetik. Orotariko irizpide gisa, lehentasuna izanen du norberaren familia zabalean hartzeko aukerak beste familia batzuen gainetik, baldin eta adingabearendako egokia bada.

Halaber, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen IV. tituluaren IV. kapituluko bosgarren atalak adopzio nazionala eta nazioartekoa arautzen du, gure eskumenean esparruan. Hala, berme sorta bat ezartzen ditu adopzio-prozedura bat hasten dutenentzat, jarduteko irizpide batzuk ezartzen ditu administrazioarentzat, eta, halaber, Nafarroako Adopzioen Erregistroa sortzen du, bertan inskribatu ahal izateko hautaketa-prozesua gainditu duten adopzioeskataile guztiak.

Baina, administrazio publikoek –kasu honetan Nafarroako Foru Komunitatea– adingabeak babestu eta haien eskubideak zaindu behar badituzte ere, aldi berean –eta horren garrantzia ez da txikiagoa– familia adoptatzaileei eta/edo hartzaileei laguntza eta orientabidea eman behar diete.

Azken aldian, atzeman da foru administrazioak jarrera lasaiagoa –ez arduragabea edo arretagabea– duela familia adoptatzaileei eta/edo hartzaileei laguntza ematerakoan, betiere babesari eta

konfidentzialtasunari buruzko berme juridiko handienarekin. Izan ere, nazioarteko adopzioaren arloan eragileak agertzen hasi dira merkatuan; hau da, izapideak erraztu eta familia adoptatzaileei laguntzen dieten entitateak, administrazio publikoaren ekintza zuzenago, inpartzialago eta ardurasuagoaren kaltetan.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du adingabeak adoptatu edo/eta hartzeko prozesuak hobetu ditzan, eta, lehenbizi, familia adoptatzaileak eta/edo hartzaileak azter ditzan eta, ondoren, familia horiek eta arlo horretan gauzatzen diren ekimen partikular edo instituzionalak babestu eta lagundu ditzan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## Adierazpen instituzionala, Genero Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta.

### ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2008ko azaroaren 24an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak, azaroaren 25a dela-eta, gogorarazten du administrazio guztiek, bereziki foru administrazioak, lankidetzan aritu behar dutela, bakoitza bere eskumenean esparruan, biktima diren emakumeen eskura ahalik eta baliabide gehien jartzeko eta behin betiko ezartzeko genero indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko sare integrala, bereizketarik gabe, Espainia osoan, eta, bereziki, Nafarroan.

2. Nafarroako Parlamentuak, erakunde gisa, konpromisoa hartzen du genero indarkeria gure gizartetik desagerrarazte aldera lan egiteko, berdintasuneko irakaskuntzatik abiatuta.

3. Nafarroako Parlamentuak jarraituko du aldizkako omenaldiak egiten, elkarretaratzeak eginez edo bestelako ekitaldi publiko edo instituzionalen bidez, genero indarkeriaren biktima izan diren per-

tsona guztiei, bai eta terrorismo matxistaren biktimen defentsan beren osotasun fisikoa ere sakrifikatu dutenei ere.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako erakundeak premiatzen ditu, bereziki Nafarroako Emakumearen Institutua eta Hezkuntza Departamentua, gazteen artean prestakuntza eta kontzientziazio ekintzak susta ditzaten, genero indarkeriaren aurkako sentsibilizazioa eta heziketa areagotzen laguntzeko, Nafarroako gizartearen etorkizuneko zimenduetatik hasita; hain zuzen, eskolan dabiltzan haur eta gaztetxoetatik hasita.

5. Herritar guztiei dei egiten diegu ezagutzen dituzten genero indarkeriaren ekintza guztien erabateko gaitzespena adieraz dezaten eta ekintza horiek poliziarri eta emakumeen laguntzarako zentzuzkoak diradela diezazkieten, horrela jokatzea biktimei laguntzeko lekukotasunik baliagarriena baita.”

Iruñean, 2008ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Funes, Faltzes eta Azkoiengo zahar-etxeetako erizaintzako diplomadunei aplikatu beharreko foru arauen betetzeari buruzkoa.**

*JOSÉ JAVIER MONZÓN ROMÉ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Monzón Romé jaunak aurkeztutako galdera, Funes, Faltzes eta Azkoiengo zahar-etxeetako erizaintzako diplomadunei aplikatu beharreko foru arauen betetzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Javier Monzón Romék, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

2008ko martxoaren 5ean, galdera hau sinatzen duen foru parlamentariak eskaera egin zuen foru parlamentariak bisitan joateko Azkoiengo, Funesko eta Faltzesko zahar-etxeetara, in situ ezagutzeko egoitza eta laguntza-zentro horien egoera, eta zer gogobetetze-maila duten egoiliarrek, langileek eta, halaber, ez baitu garrantzi txiki-agoa, entitate kudeatzaileak, horien iritzia eta eboluzionatzeko eta hobetzeko aukerak jasotze aldera.

Bisita hori 2008ko azaroaren 14an egin genuen eta oso pozik geratu ginen, parlamentarioi arreta ezin hobea eman baitziguten. Hala ere, jasotako azalpenetatik zenbait kointzidentzia ondoriozta daitezke. Hiru zahar-etxeak patronatuen esku daude; hiru egoitzek 50 postu baino gutxiago dituzte, hiru kasuetan zerbitzua ematen zaie beren kabuz moldatzen diren pertsoneri eta mendekotasuna duteneri –lehen, lagunduak esaten zitzaien– eta hiruetan, edo behintzat hori ondorioztatzen da galdera zehatzei emandako erantzunetan –akatsak edo hutsuneak salbu–, ez dago erizaintzako langilerik –gaur egun, EDU esaten zaie–; hau da, zentroko plantillako langileak, kasuan kasuko hitzarmen kolektiboan ezarritako lanaldia betetzen dutenak.

Oraindik indarrean dagoen maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuak, Gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duenak, honakoa ezartzen du eranskina-ren 2.7 artikuluan:

Lagunduentzako egoitza

Langileria:

a) Arduraduna, erdi mailako unibertsitate-tituluduna edo hiru urteko esperientzia duena antzeko kategoriako lanpostuan, 50 postu arteko egoitzetarako. 50 postu baino gehiagoko egoitzetan, arduradunak izan beharko du goi mailako unibertsitate-titulua, edo bost urteko esperientzia antzeko kategoriako lanpostuan, edo erdi mailako unibertsitate-titulua gehi bi urteko esperientzia.

b) Arreta zuzenerako langileak dira erizaintzako diplomadunak eta zerbitzu orokorretako langileak.

c) Arreta zuzenerako langileen proportzioa izanen da 0,35 langile egoiliar bakoitzeko.



d) Erabat zentroan dagoen erizaintzako diplomaduna.

e) Zuzendaritza, ikuskaritza eta jarraipena egoitzaren ardura duen entitatearen arduradunen kargura egonen da, eta zentroek ondoko espezialitateetako zerbitzu profesionalak, berezkoak, itunduak edo publikoak izan beharko dituzte: medikuntza orokorra, psikologia, gizarte lana eta fisioterapia.

Lehen azaldutakoa osatzeko, aipatu maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuak, Gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duenak, honakoa ezartzen du eranskinaren 2.8 artikuluan:

Egoitza mistoa:

Definizioa. Zentroak, zeinetan zaharrei, bai beren kabuz moldatzeko gauza direnei bai hirugarrenen laguntza behar dutenei, arreta etengabea eta zerbitzu integrala eskaintzen zaizkien, ondoko zerbitzuen bidez: ostatua eta mantenua, laguntza mediko-geriatrikoa, errehabilitazioa, terapia okupa-

zionala eta kulturaren eta aisiaren arloko beste zerbitzu batzuk.

Egoitza mistoa egokituko da, erabiltzaileei, emandako zerbitzuei, langileei eta berariazko zerbitzuei dagokienez, beren kabuz moldatzeko gauza diren egoitzetarako eta lagunduentzako egoitzetarako ezarritakora, arreta mota bakoitzeko postu kopuruaren arabera.

Beraz, galdera-egileak jasotako eta ulertutako informazioak ez badira okerrak eta aipatutako araudia ez bada aldatu eta aplikagarria bada, itxura denez, egoitza mistoek ez dute foru erkidegoko araudia betetzen.

Galderaren testua

Azkoiengo, Funesko eta Faltzeseko zahar-etxeek betetzen al dute aplikatzekoa zaien foru araudia, erizaintzako diplomadunak, hau da, zentroko plantillako langileak, kasuan kasuko hitzarmen kolektiboan ezarritako lanaldia betez, bertan etengabe egoteari dagokionez?

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: José Javier Monzón Romé

## **Galdera, Nafarroa 2012 Planean aurreikusitako obrak eginez gero Santo Domingo zahar-etxean galduko lirategen lanpostuei buruzkoa.**

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroa 2012 Planean aurreikusitako obrak eginez gero Santo Domingo zahar-etxean galduko lirategen lanpostuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Santo Domingo zahar-etxeari buruzko galdera

- Zenbat postu galduko lirategen Santo Domingoko egoitzan Nafarroa 2012 planean aurreikusitako lanak egingen balira?

- Zenbat lanpostu galduko lirategen lan horien ondorioz?

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre





NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

## HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,40 »	